**EUSKARA.** Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak 187 ziurtagiri banatu zituen atzo, Donostiako Kursaalean egindako ekitaldian. 145 eragilek Bidean ziurtagiria jaso zuten, eta 47ri, berriz, Guk Zerbitzua Euskaraz ziurtagiria eman zieten.

# Kontseiluak 187 gizarte eragileri eman die Bai Euskarari ziurtagiria

## 1998an ekindako bidean egindako urratsak uzten ditu agerian ziurtagirien banaketa horrek, Xabier Mendigurenek atzo adierazitakoaren arabera



JON URBE / ARGAZKI PRES

Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuten erakundeetako ordezkariak, atzo, ekitaldia amaitu ostean.

Eider Goenaga | DONOSTIA

Euskararen normalizazioaren alde harturiko konpromisoak garatzen ari diren 187 gizarte eragilek jaso zuten atzo Kontseiluaren Bai Euskarari Ziurtagiria. Ziurtagiriak hamaika alorretako erakundeek jaso zituzten: hezkuntza alorrekoek, komunikabideek, gizarte mugimenduek, elkarteek, kirol federazioek, kultur taldeek, zerbitzu erakundeek, laguntza elkarteek, profesional elkarteek, banketxeek, komertzioek... Horietako batzuek Bidean ziurtagiria jaso zuten, eta besteek, berriz, Guk Zerbitzua Euskaraz. «Gizartea bere aniztasunean eta aberastasunean ordezkatzen duzue», adierazi zuen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak, ekitaldian ziurtagiria jaso zuten erakundeei mintzatu zitzaienean.

Hala, Donostiako Kursaal jauregian Kontseiluak antolatutako ekitaldiak jende eta erakunde ugari bildu zituen, atzo arratsaldean. Jai giroan egin zen ekitaldia, eta ziurtagiriak banatu eta jasotzen zituztenen poza agerikoa zela. Guztira 200 lagun inguruko elkartu ziren, eta aretoa lepo bete zuten.

Ekitaldiari Odon Elorza Donostiako alkateak eman zion hasiera; ondotik, Sabin Linaza Euskaliteko ordezkariak, Rebeca Arraras Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeko ordezkariak eta Xabier Mendigurenek hartu zuten hitza.

### Erakundeek egindako ahalegina hizpide

Mendigurenen arabera, 1998an Bai Euskarari Akordioa sinatu zenean «bide bati ekin zitzaion», eta atzoko ekitaldia da

## ZIURTAGIRIA JASO DUTEN ERAKUNDEAK

**BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA BIDEAN**

**Unibertsitatea**
- Begoñako Andra Mari Irakasletzako Unibertsitate Eskola
- Eseune - Unibertsitate eta Negozio Ikasketen Europako Eskola
- Mondragon Unibertsitatea

**Prestakuntza**
- APAGI - Gipuzkoako Autoeskolen Elkartea
- CEINPRO - Heziketa Zentruo Integrala
- Ibargain Musika Eskola
- Laudioko Don't Institutua
- Lacunza - International House

**Unibertsitatez kanpoko Hezkuntza**
- BAIKARA - Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Federazioa
- Denon Eskola
- Diocesanas
- EIEF - Euskadiko Irakaskuntzarako Erlijiosoen Federakuntza
- Eskola Txikietako Guraso Elkarteen Koordinakundea
- Goierri Lanbide Eskola
- Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea
- La Salle-Berrozpe Ikastetxea
- LEA-ARTIBAI Ikastetxea
- UNI Eibar-Ermua BHI

**Irratia**
- Cadena Dial
- Hala Bedi Irratia
- Onda Vasca - Busturialdeko Irrati Telebista
- Radio Rioja Alavesa

**Prentsa**
- Pirineos
- Sua Edizioak

**Telebista**
- Canal Gasteiz
- Telesko Udal Telebista

**Elkarteen Mundua**
- BAT - Bizi Alai Taldeak
- BKE - Bizkaiko Kontsumitzaileen Elkarte Probintziala
- Blusa Neska Mutil Elkartea
- EDE Fundazioa
- EKA - Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundea
- Euskal Herriko Eskautak Araba
- Euskal Herriko Eskautak Bizkaia
- Barakaldoko Erregio Zentroen Federazioa
- Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuna
- Herria 2000 Eliza
- Hezkide Eskola
- La Bota Elkartea
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

**Ekitaldi Antolatzaileak**
- OLBE - Opera Lagunen Bilboko Elkartea

**Gizarte Mugimenduak**
- Askapena, Herriekiko Euskal Elkartasuna
- Euskadiko Garapenerako GKE Koordinakundea
- Gernika Gogoratuz
- Iparla Elkartea
- Sumendi - Osasunaren Autojestiorako Elkartea

**Kirol Federazioak**
- Euskadiko Halterofilia Federazioa
- Euskadiko Herri Kirol Federakundea
- Euskadiko Triathloi Federazioa
- Euskadiko Txirrindularitza Federazioa
- Euskal Mendizale Federakundea
- Eusko Aire Kirol Federazioa
- Nafarroako Igeriketa Federazioa

**Kirol Taldeak**
- Askatuak Saskibaloi Taldea
- Athletic
- Bidasoa Kirol Elkartea
- Reala
- Saski Baskonia SAD
- Eibar SAD

**Kultura**
- ASIFA - Euskadi
- Donostiako Orfeoia
- Donostiako Ozeanografi Elkartea Aquarium
- Euskal Dantzarien Biltzarra
- Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea
- Euskal Herriko Trikitixa Elkartea
- IBAIA - Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea
- Zaldiko Maldiko Elkartea

**Zerbitzu Orokorrak**
- AGITAX - Gipuzkoako Taxisten Elkartea
- AZTI Fundazioa — Arrantza eta Elikagaigintzarako Institutu Teknologikoa
- Bilbogas
- Bizkaia Ehorztetxea
- Compañía Autobuses Vascongados
- EEE - Energiaren Euskal Erakundea
- Larramendiko Zerbitzugunea SA
- Harrespil Hilerri eta Hileta Zerbitzuak SL
- HIRU Garraiolarien Euskal Sindikatuen Federazioa
- Naturgas- Euskadiko Gas Sozietatea
- Orbegozo Ehorzketak
- TSST Donostia - Tolosa Tranbiaren Konpainia
- Urgo Import Export S.L.
- Vascongada Ehorzketak (Fure SA)
- Zarautz Hileta Zerbitzuak SA

**Mundu Asistentziala**
- ACABE - Anorexia eta Bulimiaren Gipuzkoako Elkartea
- AGIFES - Gaixo Psikikoen eta Familiartekoen Gipuzkoako Elkartea
- ALCER - Giltzurruneko Gaixoen Gipuzkoako Elkartea
- Arabako HIESaren Kontrako Komite Hiritarra
- Arabako Odol Emaileen Elkartea
- ASAJER - Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkartea
- Gazteen Gurutze Gorria
- Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartea

**Osasuna**
- Bizkai Zergintza Elkartea